

IBILGAILUAK KONPONTZEKO TAILERRAK



Kontsumitzailea zaren heinean, ezagutu itzazu zure eskubideak eta ibilgailuak konpontzeko tailerren betebeharrak. Zure ibilgailua tailerrera eramaten duzunean, liburuxka honetan azaltzen diren 5 gakoak gogoratzea komeni zaizu.



1

INFORMAZIOA

> Tailerrak iragarki bereizgarri bat izan behar du. Bertan agertu behar dira tailerrak bete ditzakeen jardueren sinboloak, berezitasunak, probintziaren siglak eta erregistro zenbakia.



Jarduerak:

Mekanika, elektrizitatea, karrozeria, pintatzea.

Berezitasunak:

Pneumatikoak, injekzio-ekipoak, motorrak, etab.

Probintziaren siglak eta erregistro zenbakia.



Era berean, zerbitzuei dagozkien **prezioak** adierazi behar dituzte (zergak barne):

- o Lanordua.
- o Zerbitzu zehatzak eta bestelako zerbitzuak.
- o Lanalditik kanpo egindako zerbitzuak.
- o Zerbitzu mugikorrek eta egonaldiaren gastuak.

> Ikusgai izan behar dute honako informazio hau: **idatzizko aurrekontua** jasotzeko eskubidea, **erreklamazio orriak** eskuragarri dituztela eta konponketen **bermea**.

> Zerbitzuen **ordutegiak**.

2

AURREKONTUA

Idatzizko aurrekontu bat eskatzeko eskubidea duzu. Zure identifikazioaz gain, tailerrarena ere agertu behar da dokumentuan, honako hauekin batera:

- o **Ibilgailuaren identifikazioa:** marka, modeloa, matrikula eta ibilitako kilometro kopurua.
- o **Egingo diren konponketak eta jarduerak,** guztien prezioa barne.
- o **Konpondutako ibilgailua emateko aurreikusitako data.**
- o **Aurrekontuaren baliozko epea.** Gutxienez, 12 egun baliodunekoa behar du izan.
- o **Data eta zerbitzua eskaintzen duen pertsonaren sinadura.**



- > **Aurrekontua sinatzen** duzunean bakarrik egin dezakete konponketa, edo aurrekontua egiteari espreski uko egin diozunean.
- > **Konponketan aurkitzen duten edozein matxura jakinarazi** behar dizute, baita konponketaren prezioa ere. Zuk onartuz gero bakarrik konpondu ahal izango dute matxura hori.
- > **Gordailu** bat eman behar dizute ibilgailua tailerrean uzten duzun momentuan. Ibilgailua jasotzerakoan gordailu hori erakutsi beharko duzu.

> Erabiltzen dituzten pieza guztiak berriak eta ibilgailuarentzako aproposak izan behar dira, baldin eta bezeroak lehenago idatziz kontrakoa adierazi ez badu.

> Tailerrak ordezkatu diren piezak aurkeztu eta eman beharko dizkizu, horiei uko egin ez diezunean.

> Tailer guztiek eskuragarri izan beharko dituzte erabilitako ordezeko piezen prezio eta jatorriari buruzko zehaztasunak ematen dituzten ziurtagiriak.

> Tailerrek debekatuta dute behar ez diren ordezkapenak egitea, horiek kostua igotzen dutenean edo zure kotxearen kalitatea gutxitzen dutenean.

3

ORDEZKO

PIEZAK

4

FAKTURA

> **Faktura idatziz** eman behar dizute. Bertan agertu behar dira **egindako lanak**, ordezkaturako piezak eta konponketan erabilitako **ordu kopurua**. Kontzeptu guztien prezioa banakatuta agertu behar da.

> **Egonaldi gastuak** ibilgailua tailerraren begirapean aurkitzen denean bakarrik kobratu ahal izango dizkizute (aurrekontuaren prestaketa edo ibilgailuaren konponketa jakinarazi eta **3 eguneko epean** ez baduzu aurrekontua onartu edo errefusatu, edota ibilgailua jaso ez baduzu).

5

BERMEA

> Edozein tailerretan egindako konponketa edo instalazio orok gutxienez **3 hilabeteko edo 2.000 kilometroko bermea** du. Ibilgailu industrialen kasuan, 15 egunen buruan edo 2.000 kilometro egitean iraungitzen da bermea. Hala ere, konponketan jarritako piezek berme-epe luzeagoa baldin badute, piezetarako iraunaldi luzeena duenak aginduko du.

> **Berme-epea** ibilgailua entregatzen den unean sartzen da indarrean, eta lehen aipatutako iraunaldia izango du, baldin eta hirugarren batek manipulatu edo konpondu ez badu.

> **Bermea bere osotasunean ulertu behar da**, gehitutako materialak eta eskulana barne, eta sor daitezkeen gastu eratorri guztiei eragiten die: ibilgailuaren garraioa, langileen joan-etorriak edo eskulana, kasu.